

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

18/2024 Foru Dekretua, ekainaren 25ekoa, interes orokorreko xedeen esparruan mezenasgoko lehentasunezko jarduerak 2024 urterako ezartzen dituen.

Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, mezenasgoari aplikagarri zaizkion zerga pizgarriak arautzen ditu III. tituluaren.

Zehazki, titulu horretako IV. kapituluak jasotzen du zein zerga onura aplikatzen zaizkien lehentasuna aitortua duten jardueri eta aparteko interes publikoa duten gertakarietan laguntzeko programei.

Mezenasgoko lehentasunezko jardueri dagokienez, aipatutako foru arauaren 29. artikulua xedatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak interes orokorreko xedeen esparruan lehentasunezko zat jotzen diren mezenasgo jardueren zerrenda bat ezarri ahal izango duela ekitaldi bakoitzerako, entitate onuradunak zein diren eta jarduera horiek zer beharkizun eta baldintza bete behar dituzten ere zehaztuta: hori guztia artikulua horretan aurreikusita dauden zerga onurak aplikatzeko aldera.

Foru dekretu honen bitartez onesten dira 2024. urterako lehentasunezko zat jotzen diren jarduerak, eta, halaber, zehazten da zer entitatek izan behar duten ekarpenen onuradunak, hala dagokienez, eta zer beharkizun eta baldintza bete behar diren jarduera horien garapenean.

Ohi den bezala, foru dekretu honek informazio obligazioak ezartzen ditu bai lehentasunezko jarduerak eta programak garatzeko ekarpenak jasotzen dituzten pertsona eta entitateentzat, eta bai jarduketa esparru desberdinetako departamentu eskudunentzat, eta horren helburua da informazio horretatik ateratzen diren ondorioak euskarri bat izatea emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatuko dituzten lehentasunezko jarduerak etorkizunean deklaratzeko.

Beharrezkoa da aipatzea ezen honako bi arau hauek onesten, otsailaren 11ko 2/2019 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kultur mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoa, eta abenduaren 20ko 5/2022 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan oinarritzko ikerketarako mezenasgoaren aldeko pizgarri fiskalei buruzkoa, mezenasgoaren beste eremu espezifiko batzuk irekitzen direla, berariazko pizgarriak ezartzen baitira foru arau horietan aurreikusitako jarduera edo proiektuek jasotzen duten parte-hartze pribaturako.

Otsailaren 11ko 2/2019 Foru Arauaren 18. artikuluan eta abenduaren 20ko 5/2022 Foru Arauaren 14. artikuluan adierazten den bezala, bertan araututako onura fiskalak bateraezinek dira, zenbateko berberetarako, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak jasotzen dituen onura fiskalekin.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Decreto Foral 18/2024, de 25 de junio, por el que se declaran las actividades prioritarias de mecenazgo para el año 2024 en el ámbito de los fines de interés general.

La Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, recoge en su título III los incentivos fiscales aplicables al mecenazgo.

Concretamente, el capítulo IV de dicho título determina los beneficios fiscales aplicables a las actividades declaradas prioritarias y a los programas de apoyo a acontecimientos de excepcional interés público.

En relación con las actividades prioritarias de mecenazgo, el artículo 29 de la citada norma foral establece que la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá establecer para cada ejercicio una relación de actividades prioritarias de mecenazgo en el ámbito de los fines de interés general, así como las entidades beneficiarias y los requisitos y condiciones que dichas actividades deben cumplir, a los efectos de la aplicación de los beneficios fiscales previstos en el citado artículo.

A través del presente decreto foral se aprueban las actividades que para el año 2024 se declaran prioritarias, determinando al mismo tiempo las entidades beneficiarias a las que se deben dirigir las aportaciones, en su caso, y los requisitos y condiciones que se deben cumplir en el desarrollo de las referidas actividades.

Como viene siendo habitual, el presente decreto foral incluye obligaciones de información tanto de las personas y entidades destinatarias de las aportaciones para el desarrollo de las actividades y programas declarados prioritarios, como de los departamentos competentes en los distintos ámbitos de actuación, con la finalidad de que las conclusiones resultantes de dicha información sean el soporte para la adopción de futuras decisiones en la declaración de actividades prioritarias que sirvan para el fomento de la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

Resulta necesario apuntar que con la aprobación de las Normas Forales 2/2019, de 11 de febrero, de incentivos fiscales al mecenazgo cultural en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, y 5/2022, de 20 de diciembre, de incentivos fiscales al mecenazgo para la investigación básica en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, se abren otros ámbitos particulares de mecenazgo, con unos incentivos específicos para la participación privada en la realización de actividades o proyectos incluidos en dichas normas forales.

Como se señala en el artículo 18 de la Norma Foral 2/2019, de 11 de febrero, y en el artículo 14 de la Norma Foral 5/2022, de 20 de diciembre, los beneficios fiscales regulados en las mismas resultan incompatibles, para los mismos importes, con los establecidos en la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

Horiek horrela, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorritik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea.

Foru dekretu honen xedea da ezartzea zeintzuk izango diren 2024. urtean interes orokorreko xedeen esparruan lehentasunezko jarduerak, eta, orobat, adieraztea zer entitate izango diren onuradunak eta zer beharkizun eta baldintza bete behar dituzten jarduera horiek apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, 29. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

2. artikulua. Lehentasunezko jarduerak gizarte politiken esparruan.

1. Gizarte politiken arloan, lehentasunezkoztat jotzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten diren proiektuak eta jarduerak, honako helburu hauek dituztenak:

- a) Desgaitasuna duten edo bazterketa arriskuan dauden pertsonen lan eta gizarte arloan gizarteratzea.
- b) Pobrezia eta kalteberatasun egoeran dauden hurrei eta haien senideei zaintzak eta laguntza ematea.
- c) Mendekotasun egoeran dauden pertsonei, desgaitasuna dutenei, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonei eta gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan edo babesgabezia egoeran dauden pertsonei zuzendutako zainketak eta laguntzak ematea.
- d) Familia kalteberei zaintzak eta laguntza ematea.
- e) Zahartze aktiboa sustatzeko formulen aniztasuna lantzea.
- f) Komunitatearen erantzukizuna eskatzea gizarte arloko behar berriei erantzun ahal izateko.
- g) Gizarte zerbitzuen, arlo sozio-sanitarioaren eta zaintzaren tokiko ekosistemen arloko gaiei buruzko ikerkuntza eta berrikuntza.

2. Aurreko 1. apartatuan jasotako jarduerari dagokienez, irabazi asmorik gabeko entitate guztiak izan daitezke onuradun, betiere baldin eta Gipuzkoan jarduten badute lurralde horretako herritarren alde.

3. artikulua. Lehentasunezko jarduerak ingurumenaren esparruan.

Ingurumenaren esparruan, lehentasunezkoztat jotzen dira irabazi-asmorik gabeko entitateek elikagaiak alferrik ez galtzeko edo haien xahutzea murrizteko egiten dituzten programak edo jarduerak, horiekin hondakinen sorrera prebenitzen eta murrizten laguntzen dutenean.

4. artikulua. Lehentasunezko jarduerak kirolaren esparruan.

Kirolaren esparruan lehentasunezkoztat hartzen dira:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiak 2023-2024 eta 2024-2025 ikasturteetarako onesten dituen eskola kiroleko jarduera programetan ezarritako baldintzak eta beharkizunak betetzen dituzten kirol jarduerak.

b) Gipuzkoako kirol elkarte, selekzio eta kirolariek kirol txapelketetan parte hartzea, betiere beharkizun hauek betetzen badira:

a') Kirol lehiaketa ofiziala izatea, gizonezkoen 1. eta 2. mailetakoko futbol lehiaketak izan ezik.

b') Estatuko bi kategoria gorenetakoa batean edo Europa edo mundu mailako txapelketa batean parte hartzea. Taldekako zenbait kirol modalitatetan, hirugarren kategoria aintzat hartu ahal izango da lehiaketaren lurralde eremua autonomia erkidegoaz gaindikoa denean.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en su sesión del día de hoy,

DISPONGO

Artículo 1. Objeto.

El presente decreto foral tiene por objeto declarar las actividades prioritarias de mecenazgo para el año 2024 en el ámbito de los fines de interés general, así como la determinación de las entidades beneficiarias y los requisitos y condiciones que dichas actividades deben cumplir a los efectos de lo dispuesto en el artículo 29 de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

Artículo 2. Actividades prioritarias en el ámbito de las políticas sociales.

1. En el ámbito de las políticas sociales se declaran como prioritarios los proyectos y actividades que se realicen en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, destinados a:

- a) La integración socio-laboral del colectivo de personas con discapacidad y/o en riesgo de exclusión.
- b) La provisión de cuidados y apoyos a la infancia y sus familiares en situación de pobreza y vulnerabilidad.
- c) La provisión de cuidados y apoyos a personas en situación de dependencia, personas con discapacidad, personas con problemas de salud mental y personas en situación o riesgo de exclusión o de desprotección social.
- d) La provisión de cuidados y apoyos a las familias vulnerables.
- e) Trabajar la diversidad de fórmulas para la promoción del envejecimiento activo.
- f) Apelar a la responsabilidad comunitaria para responder a las nuevas necesidades sociales.
- g) La investigación e innovación sobre materias de las áreas de los servicios sociales o del ámbito socio-sanitario y los ecosistemas locales de cuidados.

2. Con respecto a las actividades incluidas en el apartado 1 anterior, podrán ser entidades beneficiarias todas aquellas entidades sin ánimo de lucro que desarrollen su actividad en Gipuzkoa en beneficio de los habitantes de dicho territorio.

Artículo 3. Actividades prioritarias en el ámbito del medio ambiente.

En el ámbito del medio ambiente se declaran como prioritarios los programas o actividades llevadas a cabo por entidades sin ánimo de lucro que tengan por objeto reducir el desperdicio o despilfarro de alimentos y, de esta manera, contribuir a la prevención y reducción de residuos.

Artículo 4. Actividades prioritarias en el ámbito del deporte.

En el ámbito del deporte se declaran como prioritarias:

a) Las actividades deportivas que cumplan las condiciones y requisitos establecidos en los programas de actividades de deporte escolar de los cursos 2023-2024 y 2024-2025 que apruebe la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b) La participación de los clubes deportivos, selecciones y deportistas guipuzcoanos y guipuzcoanas en las competiciones deportivas, siempre que se cumplan los siguientes requisitos:

a') Que se trate de una competición deportiva oficial, excepto las competiciones de 1.ª y 2.ª división de fútbol masculino.

b') Que la participación sea en una de las dos máximas categorías de ámbito estatal o en una competición de ámbito europeo o mundial. En determinadas modalidades deportivas colectivas podrá tomarse en consideración la tercera categoría cuando su ámbito territorial de competición sea supra autonómico.

Mendiko kirol modalitatean, lehentasunezkoak izango dira zortzi mila metrotik gorako gailurrak igotzea eta goi mailako eskaladak egitea.

Bertako kirol modalitateak direnean –tosta finkoko arraunketa, pilota, boloak eta toka eta herri kirolak–, lehiaketaren lurralde eremua kasuan kasuko ezaugarrien arabera erabakiko da.

Artikulu honetako b) letra honen ondorioetarako, Gipuzkoako kirolaritzat hartuko da Gipuzkoako kirol federazioen batean lizentzia federatua duen pertsona oro.

c) Honako baldintza hauek betetzen dituzten kirol jarduerak:

a') Parte-hartze esanguratsua izatea nazioartean. Baldintza hori ez da kontuan hartuko kirol modalitate autoktonoetan edo helburu nagusia kirol aisialdia duten gertaeretan, baldin eta, azken kasu horretan, mila kirolarik baino gehiagok parte hartzen badute, salbu eta parte-hartze horrek txikiagoa izan behar badu indarrean dagoen araudiak ezarritako segurtasun arazoengatik.

b') Jarduerak, zati batean behintzat, Gipuzkoan egitea.

d) Protagonistak emakumeak diren eta/edo emakumeen partaidetza bultzatzen duten kirol jarduera edo lehiaketak, edozein dela ere modalitatea, berariaz, genero estereotipoak haus-tea bultzatzen dutenak, edota emakumeen ikusgarritasuna eta aitorpen soziala sustatzen dutenak.

e) Desgaitasuna duten pertsonen zuzenduta dauden kirol egokituko edota kirol inklusiboko programak, betiere Gipuzkoan gauzatzen badira.

f) Irabazi asmorik gabeko entitateek garatutako programak, haien xedea Gipuzkoako Lurralde Historikoan goi errendimenduko kirol taldeak eta kirolariak finantzatzea denean.

5. artikulua. Lehentasunezko jarduerak kulturaren esparruan.

1. Kulturaren esparruan lehentasunezkoztat hartzen dira:

a) Nazioarteko kultur proiektuen prestaketa. Halakotzat hartuko dira nazioarte mailako aitortza lortu duten sortzaile lokalen obrak ezagutarazteko egiten direnak, Espainiatik kanpo jarduten duten kultur erakundeek egiten dituztenak edo hainbat herrialde-tako artistek parte hartuta antolatzen direnak.

b) Lurraldeko arte eszenikoen konpainiek sustatutako kultura zabaltzeko proiektuak, haurrei eta gazteei zuzendutakoak.

2. Inola ere lehentasunezko jarduera edo programaren deklarazioa ez da bateragarria izango gizarte onurakoak direla eta kultur mezenasgoa merezi dutela irizten zaien proiektu edo jarduerekin, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kultur mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak arautzen dituen otsailaren 11ko 2/2019 Foru Arauak jasotakoaren arabera. Azken kasu horretan, aipatutako foru arauan jasotakoa izango da aplikagarri.

6. artikulua. Lehentasunezko jarduerak nazioarteko lankidetzaren esparruan.

Nazioarteko lankidetzaren esparruan, lehentasunezkoztat jotzen dira Gipuzkoan bertan edo Gipuzkoatik bertatik eginak izanik helburu hauek dituzten programak eta jarduerak:

a) Giza eskubideak defendatzea.

b) Maila ekonomiko, sozial edo politikoan genero berdintasuna defendatu eta sustatzea.

c) Ingurumenaren jasagarritasuna defendatzea, baliabideen erabilera arrazionalarekin eta etorkizuneko belaunaldien bizitzarekin bateragarriak diren bizitzeko moduak ere barne.

En la modalidad deportiva de montaña, tendrán la consideración de prioritarios los ascensos a cumbres de más de ocho mil metros y las escaladas de alto nivel.

En las disciplinas deportivas autóctonas –remo banco fijo, pelota, bolos y toka y juegos y deportes vascos–, el ámbito territorial de competición a tener en cuenta se determinará en función de las peculiaridades de cada una de ellas.

A los efectos de esta letra b), se considerará como deportista guipuzcoano y guipuzcoana a toda persona en posesión de una licencia de una federación deportiva guipuzcoana.

c) Los acontecimientos deportivos que cumplan las siguientes condiciones:

a') Tener una significativa participación internacional. Este requisito no será tenido en cuenta cuando se trate de modalidades deportivas autóctonas o en aquellos acontecimientos cuyo objetivo principal sea la recreación deportiva, siempre que, en este último caso, reúnan una participación superior a mil deportistas, salvo que dicho volumen de participación tenga que ser inferior por estar condicionado por motivos de seguridad adoptados por la normativa vigente.

b') Que tengan lugar en Gipuzkoa, al menos parcialmente.

d) Las actividades y/o competiciones deportivas, sea cual sea su modalidad, protagonizadas por mujeres o que impulsen la participación de mujeres y que específicamente impulsen la ruptura de estereotipos de género o fomenten la visibilidad y el reconocimiento social de las mujeres.

e) Los programas de deporte adaptado y/o deporte inclusivo dirigidos a personas con discapacidad que se desarrollen en Gipuzkoa.

f) Los programas desarrollados por entidades sin ánimo de lucro que tengan como objeto el sostenimiento de los equipos y deportistas de alto rendimiento deportivo en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Artículo 5. Actividades prioritarias en el ámbito de la cultura.

1. En el ámbito de la cultura se declaran como prioritarios:

a) La realización de proyectos culturales de carácter internacional. Tendrán tal consideración aquellos que tengan por objeto la difusión de las obras de creadores o creadoras locales que han alcanzado reconocimiento internacional, los realizados por instituciones culturales que actúan fuera de España o aquellos otros en los que participan artistas de diferentes países.

b) Los proyectos de difusión cultural promovidos por las compañías de artes escénicas del territorio y dirigidos al público infantil y juvenil.

2. En ningún caso será compatible la declaración de actividad o programa prioritario con respecto a aquellos proyectos o actividades que pudieran ser considerados de interés social y merecedores de mecenazgo cultural, de conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 2/2019, de 11 de febrero, de incentivos fiscales al mecenazgo cultural en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, siendo aplicable, en este último caso, lo previsto en dicha norma foral.

Artículo 6. Actividades prioritarias en el ámbito de la cooperación internacional.

En el ámbito de la cooperación internacional se declaran como prioritarios los programas y actividades desarrollados en o desde Gipuzkoa destinados a:

a) La defensa de los derechos humanos.

b) La defensa y la promoción de la equidad de género en los planos económico, social o político.

c) La defensa de la sostenibilidad medioambiental y de formas de vida compatibles con el uso racional de los recursos y la vida de las futuras generaciones.

7. artikulua. Lehenasunezko jarduerak euskararen esparruan.

1. Honako jarduerak izango dira lehenasunezkoak euskararen esparruan:

- a) Euskararen erabilera soziala sustatzeko programa eta jarduerak.
- b) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltiaz, edukiak euskaraz hedatzeko proiektuak.
- c) Herri edo eskualde mailako euskarazko hedabideak.
- d) Euskararen erabilera arlo sozioekonomikoan sustatzeko jarduerak eta ekintzak.
- e) Euskarazko ahozko ondarea berreskuratu, babestu eta hedatzeko jarduerak.

2. Aurreko apartatuan adierazitako jarduera edo proiektuetako bat zein batzuk egiten dituzten guztiak izan daitezke entitate onuradunak, baldin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak 2024. urtean kudeatutako programen konturako dirulaguntzak jasotzeko beharkizunak betetzen badituzte.

8. artikulua. Lehenasunezko jarduerak sustapen ekonomikoaren eta berrikuntzaren esparruan.

1. Honako jarduera hauek izango dira lehenasunezkoak sustapen ekonomikoaren eta berrikuntzaren esparruan:

- a) Arlo hauetan ikerketa eta esperimentazio lana garatzen edo ahalbidetzen duten jarduerak: nanozientziak, nanoteknologiak, mikroteknologiak, fabrikazio aurreratuak ikerketa jarduerak, adimen artifiziala, genomika eta proteomika, bioteknologia, neurozientziak, arlo biosanitarioa, energia berriztagarriak, erregai-pilak, zi-bersegurtasuna, pertsonen zahartzea, elektromugikortasuna eta gastronomiaren digitalizazioa.

Eremu honen barruan sartuko dira ikerketa lerro eta proiektuak eta teknologikoki bereziak diren azpiegitura eta ekipamendu berrietan egindako inbertsioa, ikerketa lerro berriak zabaltzea ahalbidetzen dutenean.

Era berean, lehenasunezko zatik joko dira zientzia munduaren arduraren eremuetan emakumeen presentzia balorizatu eta bultzatzea helburu duten jarduerak, zeregin hori betetzen duten neskatokak eta gazteak mundu zientifikora hurbiltzen lagunduko duten ekimenak garatuz, edo emakumeak buru dituzten ikerketa taldeei zuzendutako bekak, coaching edo laguntza programak bultzatuz.

- b) Enpresen ekintzailatza eta nazioarteko lankidetzak sustatzeko programak eta jarduerak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko irabazi asmorik gabeko entitate pribatuak edo Gipuzkoako lurraldearen garapen ekonomikoa sustatzen duten zuzenbide publikoko korporazioek eginak direnean.

- c) Bizitza osoko ikaskuntza sustatzeko jarduerak, hasierako prestakuntza arautua (hezkuntza agintari eskudunek finantzatua), okupazionala eta jarraitua integratzen duten entitateek garatzen dutenean.

- d) Euskal Herriko Unibertsitatearen «Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren astea».

- e) «Ekonomia berde»-aren estrategian bildutako ekimenak, esparru hauetako bat hartzen dutenean:

- Diseinu ekologikoa.
- Ekonomia funtzionala.
- Berrerabilpena.
- Konponketa.
- Birfabrikazioa.
- Birziklapena.
- Ekologia industrial.

Artículo 7. Actividades prioritarias en el ámbito del euskera.

1. En el ámbito del euskera se declaran como prioritarias las siguientes actividades:

- a) Programas y actividades de promoción social del uso del euskera.
- b) Proyectos de difusión de contenidos en lengua vasca mediante tecnologías de la información y de la comunicación.
- c) Medios de comunicación en euskara de ámbito local o comarcal.
- d) Actividades y acciones de impulso al uso del euskera en el ámbito socio-económico.
- e) Recuperación, protección y difusión del patrimonio oral vasco.

2. Podrán ser entidades beneficiarias todas aquellas que realicen o desarrollen alguna o algunas de las actividades o proyectos indicados en el apartado anterior, y que cumplan los requisitos para ser beneficiarias de las subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Igualdad Lingüística de la Diputación Foral de Gipuzkoa durante el año 2024.

Artículo 8. Actividades prioritarias en el ámbito de la promoción económica y la innovación.

1. En el ámbito de la promoción económica y la innovación se declaran como prioritarias:

- a) Las actividades que desarrollen o posibiliten la investigación y experimentación relacionada con las nanociencias, nanotecnologías, microtecnología, actividades de investigación en fabricación avanzada, inteligencia artificial, genómica y proteómica, biotecnología, neurociencias, biosanitaria, energías renovables, pilas de combustible, ciberseguridad, envejecimiento, electromovilidad y gastronomía digital.

En este ámbito, se incluirán las líneas y proyectos de investigación y la inversión en nuevas infraestructuras y equipamientos tecnológicamente singulares, que posibiliten abrir nuevas líneas de investigación.

Igualmente se considerarán prioritarias aquellas actuaciones dirigidas a valorizar e impulsar la presencia de las mujeres en ámbitos de responsabilidad en el mundo científico, tanto mediante el desarrollo de iniciativas que contribuyan al acercamiento de niñas y jóvenes hacia el mundo científico como en el impulso de programas de becas, coaching o apoyos específicos a grupos de investigación liderados por mujeres.

- b) Los programas y actividades de impulso del emprendimiento y de la cooperación internacional empresarial, llevadas a cabo por entidades privadas sin ánimo de lucro en el Territorio Histórico de Gipuzkoa o por corporaciones de derecho público que promuevan el desarrollo económico del territorio de Gipuzkoa.

- c) Las actividades de promoción del aprendizaje a lo largo de toda la vida (ALTV) desarrolladas por entidades que integren la formación inicial reglada (financiada por las autoridades educativas competentes), ocupacional y continua.

- d) La Semana de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación de la Universidad del País Vasco.

- e) Iniciativas incluidas en la estrategia de la «economía verde» relacionadas con alguno de estos ámbitos:

- Diseño ecológico.
- Economía funcional.
- Reutilización.
- Reparación.
- Refabricación.
- Reciclaje.
- Ecología industrial.

f) Gipuzkoan terapia aurreratuak eta konputazio kuantikoa azkarrago ezartzea helburu duten jarduerak.

g) Inbertsio-industriaren kultura sustatzeko jarduerak, toki-ko enpresa-sarea garatzeko palanka gisa, hezkuntza eta ikerketajarduerak garatuz eta/edo babestuz, bai eta ezagutza zabalduz ere, hitzaldi, mintegi eta argitalpenen bidez.

h) Genero aniztasuna sustatzea eta emakumeak erabakiak hartzeko organoetan sartzea helburu duten jarduerak, lurraldearen garapen ekonomiko eta soziala bultzatzeko beharrezko elementu gisa.

2. 1. apartatuko a) letraren jardueraren bat edo batzuk beren helburuen artean dituzten entitate guztiak izan daitezke onuradunak. Nahitaezkoa da jarduera horiek Gipuzkoan egitea, eta entitateak lurralde horretan kokatuta egotea.

Zehazki, entitateek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agenteak izan behar dute edo Foru Sektore Publikoak izan. Ospitaleek egindako ikerkuntza jarduerak ere barruan sartu daitezke, haien helburua 1. apartatuaren a) letran jasotakoan artean badago.

Esparru honen barruan sartuko dira ikerkuntza lerro eta proiektuak.

3. Lehenetsunezko jarduera edo programaren deklarazioa ez da inola ere bateragarria izango Gipuzkoako Lurralde Historikoan oinarritzko ikerketarako mezenasgoaren aldeko pizgarri fiskalak arautzen dituen abenduaren 20ko 5/2022 Foru Arauaren aplikazio eremuko proiektu edo jarduerekin; azken kasu horretan, foru arau horretan aurreikusitakoa aplikatuko da.

9. artikulua. *Lehenetsunezko jarduerak suteen prebentzio esparruan.*

Suteen prebentzio esparruan lehenetsunezkotzat hartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoan suteen aurkako lanaren arloan trebatzea eta prestatzea xede duten irabazi asmorik gabeko entitate pribatuek garatutako jarduerak eta programak.

10. artikulua. *Doako zerbitzu prestazioei onurarik ez aplikatzea.*

Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, 29. artikuluan ezartzen dituen zerga onurak ez dira aplikagarriak izango pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek, sozietateen gaineko zergaren zergadunek edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek aurreko 2tik 9ra bitarteko artikuluetan adierazitako esparruetako eodozeinetan doan egin dituzten zerbitzu prestazioetan.

11. artikulua. *Ondasun entregen balioaren zehaztapena diruzkoak ez direnean.*

Lehenetsunezkotzat hartutako jarduerak edo programak garatzeko diruz egiten ez diren ondasunen entregak baloratze aldera, jarraituko zaio apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoak, 20. artikuluan jasotakoari.

12. artikulua. *Zerga onurak aplikatzeko mugak.*

Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoak, 29. artikuluan jasotako zerga onurak bakarrik aplikatu ahal izango zaizkie batera hartuta dena delako programa edo jarduera garatu edo exekutatze behar diren inbertsioen eta gastuen batura gainditzeko ez duten ekarpenei.

f) Las actuaciones que tengan por objeto acelerar la implantación en Gipuzkoa de terapias avanzadas y de la computación cuántica.

g) Las actividades para fomentar una cultura de la industria inversora como palanca de desarrollo del tejido empresarial local, mediante el desarrollo y/o patrocinio de actividades educativas y de investigación, así como la divulgación de conocimiento a través de conferencias, seminarios y publicaciones.

h) Las actividades para promover la diversidad de género, y la inclusión de las mujeres en los órganos de toma de decisiones, como elemento necesario para impulsar el desarrollo económico y social del territorio.

2. Con respecto a las actividades incluidas en la letra a) del apartado 1 anterior, podrán ser entidades beneficiarias todas aquellas entidades que incluyan entre sus finalidades alguna o algunas de las actividades indicadas en dicha letra, debiendo desarrollarse en Gipuzkoa y por entidades localizadas en dicho territorio.

En particular, las entidades deberán estar acreditadas como agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación o pertenecer al Sector Público Foral. También podrán incluirse las actividades de investigación realizadas por hospitales, siempre que tengan como finalidad alguna de las incluidas en la letra a) del apartado 1.

En este ámbito se incluirán las líneas y proyectos de investigación.

3. En ningún caso será compatible la declaración de actividad o programa prioritario con aquellos proyectos o actividades que estén dentro del ámbito de aplicación de la Norma Foral 5/2022, de 20 de diciembre, de incentivos fiscales al mecenazgo para la investigación básica en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, siendo aplicable, en este último caso, lo previsto en dicha norma foral.

Artículo 9. *Actividades prioritarias en el ámbito de la prevención de incendios.*

En el ámbito de la prevención de incendios se declaran prioritarias las actividades y programas desarrollados por entidades privadas sin ánimo de lucro que tengan como objeto el adiestramiento y la formación en materia de prevención y extinción de incendios en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Artículo 10. *Inaplicación de beneficios a las prestaciones de servicios gratuitas.*

No les serán aplicables los beneficios fiscales establecidos en el artículo 29 de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, a las prestaciones de servicios gratuitas realizadas por los y las contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas, del impuesto sobre sociedades o del impuesto sobre la renta de no residentes, en cualesquiera de los ámbitos señalados en los artículos 2 a 9 anteriores.

Artículo 11. *Determinación del valor en las entregas de bienes que no consistan en dinero.*

Las entregas de bienes que no consistan en dinero, aportadas para el desarrollo de las actividades o programas declarados prioritarios, se valorarán de conformidad con los criterios establecidos en el artículo 20 de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

Artículo 12. *Límite a la aplicación de los beneficios fiscales.*

Los beneficios fiscales previstos en el artículo 29 de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, únicamente resultarán de aplicación a aquellas aportaciones que en su conjunto no superen la suma de las inversiones y gastos necesarios para el desarrollo y ejecución del programa o actividad de que se trate.

Muga hori gaindituz gero, zerga onura ekarpen zaharrenei aplikatuko zaie.

13. artikulua. *Lehentasunezko jardueraren berariazko izendapena.*

1. Foru dekretu honetako 2tik 9ra bitarteko artikuluetan aipatutako jarduera edo programetako bat edo batzuk egiten dituzten pertsona edo entitate guztiek, 2024ko abenduaren 1a aurretik, jarduera edo programa hori lehentasunezkoen artean sartzeko eskaera idatzia aurkeztu beharko dute, berariaz hala izenda dadin. Jarduketa esparruaren arabera Gipuzkoako Foru Aldundian eskudun den departamentuari aurkeztuko zaio eskaera hori.

2. Eskaera horrekin batera, lehentasunezko izaera eskatzen zaion jarduera edo programaren deskribapenari buruzko memoria bat aurkeztu beharko da, bai eta inbertsio, gastu eta sarreraren aurrekontu bat.

14. artikulua. *182 eredua aurkezteko betebeharra.*

Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren 29. artikuluko 4. apartatuan eta Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimena eta mezenasgoaren aldeko pizgarriak aplikatzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 2ko 87/2004 Foru Dekretuaren 8. artikuluan aurreikusitako betebeharrak formalak alde batera utzi gabe, nahitaezkoa izango da ekarpenen onuradunek honako eredua aurkeztea: 182 eredua –Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Emariak, dohaintzak, doako zerbitzu prestazioak eta bestelako ekarpenak. Urteko laburpen informatiboa–.

15. artikulua. *Garatutako jarduera edo programen genero eraginari buruzko informazioa.*

2024. urtean lehentasunezko izendatzen eta garatzen diren jarduera edo programa guztietan, haien garapenerako ekarpenak jasotzen dituzten pertsonak eta entitateek informazio hau adierazi beharko dute irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimena eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak aplikatzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 2ko 87/2004 Foru Dekretuaren 8. artikuluko 1. apartatuaren arabera aurkeztu behar den memorian: garatutako jarduera edo programaren genero eraginari buruzko informazioa, eta jarduera edo programa horrek genero estereotipoak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko helburuak bete izanari buruzkoa.

Horretarako, memorian informazio hau sartuko da bereziki:

- a) Datuak sexuaren arabera bereizita.
- b) Jarduerak edo programak pertsona juridikoek egiten dituztenean, gobernu organoen osaerari buruzko informazioa.
- c) Jarduerak edo programak zein kolektibori dauden zuzenduta, eta haien bidez zein helburu lortu nahi diren.

16. artikulua. *Elkarrekikotasuna lehentasunezko jardueren deklarazioan.*

Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, 31. artikuluan xedatzen duenez, foru arau horren 29. artikuluan aurreikusten diren zerga onurak estatuko eta beste foru lurraldeetako organo eskudunek lehentasunezko-tzat jotzen dituzten jarduerari eta programei ere aplikatuko zaizkie, baldin eta, haiek onetsia duten araudian beste hainbeste egiten bada Gipuzkoako Foru Aldundiak onetsitako jarduera eta programekin.

En el caso de que dicho límite sea superado, el beneficio fiscal se aplicará a las aportaciones más antiguas.

Artículo 13. *Declaración expresa de actividad prioritaria.*

1. Todas aquellas personas o entidades que realicen o desarrollen alguna o algunas de las actividades o programas incluidos en los artículos 2 a 9 del presente decreto foral, deberán presentar, antes del 1 de diciembre de 2024, una solicitud escrita de inclusión de la actividad como prioritaria, a los efectos de su declaración expresa; solicitud que será presentada al departamento competente de la Diputación Foral de Gipuzkoa en razón del ámbito de actuación.

2. Dicha solicitud deberá estar acompañada de una memoria descriptiva de la actividad o programa para el cual se solicita el carácter de prioritario y un presupuesto de inversiones, gastos e ingresos.

Artículo 14. *Obligación de presentar el modelo 182.*

Sin perjuicio de las obligaciones formales previstas en el apartado 4 del artículo 29 de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, así como el artículo 8 del Decreto Foral 87/2004, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento para la aplicación del régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos al mecenazgo, será preceptiva para las beneficiarias de las aportaciones la presentación del modelo 182 –Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Impuesto sobre Sociedades e Impuesto sobre la Renta de no Residentes. Donativos, donaciones, prestaciones gratuitas de servicios y demás aportaciones. Resumen informativo anual–.

Artículo 15. *Información sobre el impacto de género de las actividades o programas desarrollados.*

En todas las actividades o programas declarados prioritarios y desarrollados durante el año 2024, las personas y entidades que reciban las aportaciones para su desarrollo deberán incluir en la memoria a la que se refiere el apartado 1 del artículo 8 del Decreto Foral 87/2004, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento para la aplicación del régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos al mecenazgo, información sobre el impacto de género y sobre el cumplimiento, por parte de la actividad o programa desarrollado, de los objetivos de eliminación de estereotipos de género y de fomento de la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

A tales efectos, en la memoria se incluirá, en particular, la siguiente información:

- a) Datos desagregados en función del sexo.
- b) Cuando las actividades o programas sean desarrollados por personas jurídicas, información sobre la composición de sus órganos de gobierno.
- c) Colectivo destinatario de las actividades o programas y el objetivo que se persigue lograr a través de los mismos.

Artículo 16. *Reciprocidad de declaración de actividades prioritarias.*

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 31 de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, los beneficios fiscales reconocidos en el artículo 29 de la referida norma foral serán de aplicación a aquellas actividades y programas prioritarios que así sean declarados por los órganos competentes del Estado y de los Territorios Forales, siempre que en la normativa aprobada por los mismos se reconozcan de forma recíproca las actividades y programas aprobados por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Xedapen gehigarri bakarra. Genero eraginari buruzko txostena.

Lehentasunezko izendatutako jarduerak edo programak garatzen dituzten pertsona eta entitateek beren memorietan eman behar duten informazioan oinarrituta, gaian eskumena duen departamentuak txosten bat egingo du garatutako jarduera edo programaren genero eraginari buruz, eta, hala badagokio, txostenean hizpide izango du, baita ere, zer neurritan betetzen dituen jarduera edo programa horrek genero estereotipoak ezabatzeko eta emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko helburuak. Horretarako, bere departamentuko Berdintasun Unitatearen aholkularitza jaso ahal izango du, zeinak, aldi berean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren aholkularitza eskatu ahal izango du.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea eta ondorioak.

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Donostia, 2024ko ekainaren 25a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Eider Mendoza Larrañaga.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Jokin Perona Lerchundi.

(4822)

Disposición adicional única. Informe sobre impacto de género.

Con base en la información aportada en las memorias que deben presentar las personas y entidades que desarrollen las actividades o programas declarados prioritarios, el departamento competente por razón de la materia realizará un informe sobre el impacto de género y, en su caso, sobre el cumplimiento, por parte de la actividad o programa desarrollado, de los objetivos de eliminación de estereotipos de género y de fomento de la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres. Para ello, podrá contar con el asesoramiento de la Unidad de Igualdad de su propio departamento, que, a su vez, podrá recabar el asesoramiento del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Disposición final única. Entrada en vigor y efectos.

El presente decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y surte efectos desde el 1 de enero de 2024.

San Sebastián, a 25 de junio de 2024.

LA DIPUTADA GENERAL,
Eider Mendoza Larrañaga.

EL DIPUTADO FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
HACIENDA Y FINANZAS,
Jokin Perona Lerchundi.

(4822)